

265/2022 EBAZPENA, azaroaren 29koa, Emergentziak ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Emergentziak ESiko Bizkaiko Emergentziak Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Emergentziak ESiko zuzendari gerentearen irailaren 13ko 201/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Emergentziak ESiko Bizkaiko Emergentziak Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urriaren xx(e)ko EHAA 204 zk. eta 2022ko azaroaren 2o BOE 263 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko azaroaren 23an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Emergentziak ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Emergentziak ESiko Bizkaiko Emergentziak Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Emergentziak ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2022ko azaroaren 29



Emergentziak erakundeko zuzendari gerentea,
Oscar Aller Garcia

I. ERANSKINA

BIZKAIKO EMERGENTZIAK ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENEKO
LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Isabel Castelo Tarrio.

Baztertuak:

Inor ez.